

EUSKALDUN FEDEA

Bellas Artes-ko antzokiya

IGARO dan urteko eguarri eguneko arratsaldean eman zuben «Euskaldun Fedeak euskal jolas aldi eder bat, Bellas Artes-ko antzoki politan aurkezturik seiki arrabetariyen otskaitze ondoren *Amoriyua eta interesa* zeñaren gai aundiak neurtu zituzten, Bitorina Artola, Rosario Artola, Maria Kasal, Felipe Kasal, Juan Sabadie, Federico Larman eta Joñe Ganboak, izanik chit malla goyan aritu zana gai neurtze ontan guztiyez gaiñ, Larman, bere ingi zati On Martiñ-en irudikuan; guztiz mintzoera ederrian esan zubelako, laugarren irudiko bakarizketa mindun au. *¡Ai, au bizi modu tristia! Bakarrik egon arren, burutik eziñ atera det egindako aziyuaren oroimena, edo kontzientziyak ez dit paketan usten. ¡Iñon ez det aurkitzen sosegurik! ¿Eta zer egiñ trantze onetan?* Bazirudiyen itz oek esaterakuan, samintasun egiyazkuaren bidez, bere animarekiñ borroka biziyan zebillega biyotza katibatuaz, korapillo sendo askagaitz batzuekin, bada barrungo erapeko guztiyak mogiera zalapartazkuak egiten baziyozkaten bezala, agertzen zitayozkan samintasunezko gaitzak azalera; guztiya egiten zuben, On Martiñ ber-bera bazan bezalako irudiyan. Erdal antzokiyan sayatzen zanian ere, lagun guztiyez goitik osatzen zituben gai neurtze guztiyak, eta oraiñ, aurcho zala seaskatik ikasitako izkuntza ederrean, gure euskara bear diña maitatzen ez degun ortaz mintzaten ere, dago guztiz malla goitsuan, zeñak neurtzen duben iruditegia. bear dan bezelako maisutasun osuan.

Onekin batean izendatutako gizasemeak ere, beren ingi guztiyak aurkestu zituzten, osoro goiki eta maisutasun aundiyan, bañan *Ama Euskararen* alaba berdiñik gabeko oriyek, baziruditen ari zirala, *Ama*

gajo orren bularreko iraña edozkitzen, beren mintzoera samur eta egokitsuz. ¿Zer alaba maitatitak dituzun, Ama? ¿Bañan, zergatik ez da emakumietan euskaraganako griña maitakitsua, geyago ugaritzen? ¿Zergatik ez dira beste emakume geyago arretaz antzokiratzen?

Badira *Euskal-erriyan* elkar billeche asko, emakumiaren antzarik ikusi nai ez dutenak beren artean, eta jolasaldi guztiyak egin nai dituztenak gizartez bakarrik. ¿Bañan zergatik ori? ¿Echerako artu nai degun emakumiak, ez aldu merezi elkartasunezko katibatasunik euskal antzokiyetako iruditegiyetan? ¿Etziyon Jaungoikuak eman Adan-i laguntzat emakumia, bakarrikako izaera motza zerizkiyolakko? ¿Eta au orla izanik, zergatik nai dituzte zenbaitek baztarreratu emakumiak elkar billechietako antzokiyetatik? ¿Emakume irudiyak ez daude Elizako aldarietan? ¿Gure izkuntz ederrari ere, ez diyogu deitzen emakume izenez, Ama? ¿Orduan, onen alabak zergatik izan bear dute baztarreratuak beren anayakgatik? Anaitasuna bear degula esan oi degu euskaldun artean; bañan au, guchicho da nere iritziz, nik nai nukiena da, senidatasuna.

Orañ esan beza Euskal itz jolasdien batzarreak, arrazoi daukadan edo ez; anaitasunakiñ bakarrik, ez genezake pizkortu gure euskara maitagarriya, bañan bai, senidetasun aundiyaekiñ, zergatik senidetasunian sartzen geran guztiyak.

Bada, len esan detan oriyek, iritzi inozotsu orri jarraitu nai badiyote, esan diteke dirala Euskal izkuntzaren kaltegarri aundiyak, zergatik izkuntzaren lenengo indar emallea dan emakumea, eta oni, gure jolas tokiyetan eman bear zayozka askatasun onak zapuztu ez dediñ; bada zapuztuko balitzake, gañeratuko litzaizkake kalte aundiak gure euskera maiteari, kolka bat zapuzten danian, bere egopez bero iduki izandu dituben arraultzari bezela.

Egin zayezute bada toki emakumiai iruditegi guztiyetan, eta dauzkatzuten oitura arrazoi gabeak baztarreraturik, iruditegiratu itzazkitzute emakumiakiko jostirudi egoki egiñak.

Bizi bedi Euskera; bañan emakumiak antzokiraturik, Artola seni-deak, eta Kasal-ek beren alabak bezela, bada gaur, gai oberik ez da gure izkuntza pizkortzeko.

Geyago luzatu gabe albista aspergarri au, jakiñ araziko det, *Iskiña Mutrikun* aurkestu zala lenengo abalizketa-ren ondoren, zeñarekiñ oitura duben bezela Pepe Artola-k eragiñ arazi zuben algara asko, izanik au, chalope ugarituz eskutatua.

Gero, *Bañan, ¿zein naiz ni?.....* jostirudi fargaiduna iruditegiratu zuten, Artola, Ganboa, Larman, Sabadie, Gorostidi, Echebeste eta Erramun Gelbenzu-k, gai neurtze guztiyak chit ederki osaturik. ¿Eta, zer esango det Domingo Andonegi-gatik? Gizagajo onek, lana ugari egin zubela echola baten barrunen, bañan onentzat etzala cholorik izan; zori onak opa diyozkat luzaroko berari, eta antzokiyan cholorik aditu ez bazuben ere beretzat, biyotzaren aginde onez, neronek chalo-katzen det bere lan nekosuaren saritzat.

Oitura dan bezela jolas aldi abetan, bukaera eman ziyoten arratsalde artako euskal jayari, Gaztelu eta Oloki bertsolari yayuak, itz neurketa guztiyak ederki egiñaz.

Ongi mereziyak ditu chalo ugariyak «Euskaldun Fedea-k».

JUAN INAZIO URANGA.

